

JESUS ETA KAFARNAUNGO KAPITANA

1

Gaur dogu Kafarnaungo
gizon kapitana,
bere zerbitzari bat
gaixorik eukana.
Haren osasuna zan
kezkutzen ebana,
bere alde erreguz
doa Jesusgana.

2

“Entzun eidazu, Maixu,
nire eskaria,
oso gaixorik daukat
nik zerbitzaria.
Bere alde eskatzen
deutsut miraria,
horrela bada behintzat
zure guraria”.

3

“Oraintxe bertan noa
Neu zure etxera
zuk hain maite dozuna
guztiz osatzera”.
-”Nor naz niri Zu etorri
zaitezan gurera?
Esaizu berba bat ta
nahikoa da bera”.

4

“Neuk ere hor badodaz
hainbeste menpeko,
hau ta hori agindu
ta prest egiteko.
Zuk agindu bertatik
gatxari izteko,
ez da besterik behar
bera osatzeko”.

5

“Hori da sinismena,
kapitan jentila!
Eta zure otoitza
sendo ta umila.
Eskatu dozun dana
gertatu dedila,
osatuta daukazu
etxeke mutila”.

6

Gogoan hartzekoa
gaurko mirari hau,
Jesusek harrituta
hauxe esan nahi dau:
Jentil antzeko asko
doguzala kristau,
eta kristauak jentil,
ta ez bi edo lau.